



## ERREGLAMENDUA

### *Euskal Eurohiriko eKop saria - Mugaz gaindiko enpresa ekimenaren saria -*

---

#### A. Xedapen orokorrak

Azken urte hauetan, pertsona askok azaldu du mugaz gaindiko lankidetzaren bultzatzeko konpromiso partikularra. Euskal Eurohiriaren garapenerako mugaz gaindiko Agentziak eta Bihartean mugaz gaindiko Merkataritza eta Industria Ganberak espazio horren aldeko ekimenak sustatu eta eskertu nahi dituzte sari bat emanaz: **Euskal Eurohiriko eKop Saria – mugaz gaindiko enpresa ekimenaren–**, lurralde honetan burututako lankidetzaren eta ekimenaren eredugarritasuna ezagutzera emateko eta horien etorkizunaren aldeko apustua egiteko.

##### 1. Xedea.

Kideek hainbat sari emango dute urtero, **Euskal Eurohiriko eKop saria –mugaz gaindiko enpresa ekimenaren–** mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan, lurralde bakoitzean, dinamismo gehien azaldu duten eragileei merezitako omenaldia eskaintzeko, kontuan hartuta esparru horrek jarduera ekonomikoa sortzen duela.

##### 2. Hautagaiak

Gure mugaz gaindiko gunearen garapen, errekonozimendu eta balorazioan aparteko eragina izan dezaketen jarduerak, konpromiso eta sortze-lanak eskaintzen dituzten pertsonak edo talde publikoak (unibertsitateak, zentro teknologikoak) nahiz pribatuak.

#### B.- Saria

##### 3. Parte hartzeko baldintzak.

Lehiaketa horretan parte har daiteke ohiko ekintzak edo proiektu puntualak aurkeztuta, xede ekonomikoa duten industria, artisautza, teknologia, kultura, zientzia, unibertsitate, nekazaritza, ekonomia eta ingurumen esparruetan, besteak beste, hautagaiek egindakoak.

Saria emateko orduan, garrantzi berezia izango dute, batetik, mugaz gaindiko lankidetzaren arloak, eredugarritasunak, eta proiektuaren eragin ekonomikoa Eurohiriaren lurraldean, eta, bestetik, aukeratutako pertsonak eta taldeak jaso dituzten emaitzek.

“**eKop**” eskuratzeko aukera izateko, baldintza hauek bete behar dira derrigorrez:  
- mugaz gaindiko lankidetzaren ekimenak hartzea,



- lurraldearen alde esku hartzea.
- proiektuan parte hartzen duten kideetako bik, gutxienez, Euskal Eurohirian bizi behar dute.

#### 4. Deialdia

Urtero irekiko da lehiaketako irabazleen hautaketan parte hartzeko deialdiko prozesua. Proiektuak inprimaki elektronikoko bakarreko formatuan aurkeztuko dira. **Hautagai dossierra** Euskal Eurohiriaren web orrian dago eskuragarri ([www.eurohiria.org](http://www.eurohiria.org)) eta Eurohiriko hiru hizkuntzetako batean bete behar da. Aipatu dossierrak alor hauek bete beharko ditu:

- proiektuaren titulua,
- kideen nortasuna
- proiektuaren deskribapena,
- proiektuaren mugaz gaindiko balio erantsia,
- aurkeztutako proiektuaren egokitasuna,
- Proiektuak duen garrantzia ekonomian, ingurumenean eta gizarte alorrean.

#### 5. Sariaren xedea

Sari horren bitartez saritu nahi da gure mugaz gaindiko gunearen garapen, errekonozimendu eta balorazioan aparteko eragina izan dezakeen jarduera, konpromiso eta/edo sortze-lana eskaintzen duen pertsona edo erakundeak (publikoak nahiz pribatuak)

#### 6. Saria ematea

Sari nagusia arte eskolek diseinatutako obra bat da.

Sariak 5.000 euroko diru-ordaina izango du gehienez, eta horrela banatuko da:

- Lehen saria: 3.000 €
- 2 akzesit: bakoitza 1.000 eurokoa, jasoko diren hautagaitzen arabera.

#### 7. Saria emateko zeremonia

Mugaz gaindiko gai baten inguruko hitzaldi batean emango dira sariak.

Mugaz gaindiko enpresa ekimenaren eKop sari-banaketa eta hitzaldia Euskal Eurohiriko udalerrri batean izango da.

### C. Epaimahaiak

#### 8. Kideak

Entitate babesle bakoitzeko kide bat izango da epaimahaian.

#### 9. Deliberazioa

Guztien artean adostutako saioretan eztabaidatuko dute epaimahaikideek.

Botoa ezin da beste norbaiten esku utzi eta epaimahaikide bakoitzak bere botoa emango du botazioa egiten den unean. Emandako sari bakoitzak epaimahaikide guztien onarpena izan behar du.



Epaimahaiak bere erabakia arrazoituko du irizpide hauen arabera:

- enpresen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren eredugarritasuna, publikoaren eta pribatuaren artean,
- lurralderako ekimenak duen interesa (gaia, edukia eta ekintzen garrantzia, alderdi teknologikoak, enplegua...),
- ekimenaren ekarpenak eta /edo eraginak, mugaz gaindiko lankidetzak finkatzeko,
- ezinbesteko baldintza izango da parte hartzen duten kideetako bat gutxienez Euskal Eurohirian bizitzea. Kide bat baino gehiago bizi badira Euskal Eurohirian, baloratzeko irizpide bat izango da.
- proiektuaren garrantzia garapen iraunkorrerako,
- proiektuaren garrantzia gizarterako.

## **10. Epaia.**

Epaimahaiaren erabakiaren akta egingo da eta kide guztien sinadura izango du. Akta horretan aipatu behar dira hautagaien ebaluaziorako epaimahaikideek erabilitako irizpideak eta zeintzuk diren irabazleak: lehen saria eta akzesitak; halaber, labur eta garbi adieraziko da zergatik eman zaizkien sariak irabazleei.

Akta hori sinatu ondoren erabakia apelaezina izango da.

## **11. Lehiaketa hutsik uztea.**

Epaimahaiak lehiaketa hutsik utzi dezake uste badu inork ez duela aurkeztu behar beste meriturik aipatutako sariak jasotzeko.

## **12. Hautagaien betebeharrak.**

- Erreglamendua irakurtzeko eta argi eta garbi onartzeko Konpromisoa hartzen du.
- Saria esleitu zaion moduan onartzeko konpromisoa hartzen du.
- Aurkeztutako proiekturaren jabetza intelektualaren jabea dela onartzen du edo jabetza dutenek baimenduta dagoela.
- Uko egiten die lehiaketaren antolaketako baldintzei, emaitzei eta antolatzaileen eta kolaboratzaileen erabakiei dagokien edozein erreklamaziori.

## **13. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Legea eta “Loi informatique et libertés”**

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, hautagaiek eskubidea izango dute: ikusteko, aldatzeko, konpontzeko eta datuak kentzeko dagozkien izaera pertsonaleko datuak. Aipatu eskubidea gauzatu dezakete, Donostia-Baiona Euskal Eurohiria garatzeko mugaz gaindiko Agentzian, Gipuzkoako Enparantza, z/g, 20004 Donostia.

1978ko urtarrilaren 6ko 78-17 Legearen arabera, hautagaiek eskubidea izango dute: ikusteko, aldatzeko, konpontzeko eta datuak kentzeko dagozkien izaera pertsonaleko datuak. Aipatu eskubidea gauzatu dezakete, Agglomération Côte Basque-Adour, 15 avenue Foch, 64 100 BAYONNE.

Eranskina : Euskal Eurohiriko mapa

## MUGAZ GAINDIKO AGENTZIAREN KIDEAK

